

BALIOA:

- Gaur egunean ez dago aplikaziorik, aplikazio honek ematen dituen aukera eta ezaugarri berdinekin, beraz, bakarra da.
- Multifuntzionala da, aplikazioak hainbat funtzio ditu, ondoren datorren funtsezko jarduerak atalean zehaztuko ditugunak.
- Dohainik da, beraz edozeinek eskuratu dezake, hau da, bezeroak ez du prezio finkorik ordaindu behar aplikazioa erabiltzearen truke.
- Erabiltzeko erraza da. Dena pausoz pausoz aiderazita dago.
- Deskargatzerakoan hainbat irizpide ematen dira aurrerantzean bezeroak zailtasunik gabe erabil dezan gure aplikazioa. Pauso batzuk markatuko ditugu aplikazioaren erabilpena argitzen lagunduko dutenak.
- Ingurumenarekin lotutako proiektua da, hau da, gaur egungo klima aldaketaren aurka borrokatzeko aukera ematen du, adibidez, parrandan ateratzen zarenean botila lurrean uzterakoan zakarrontzira bota behar duzula gogoratuko dizu. Honetan oinarrituko da gure ideia.
- Bestalde, merchandaising atala ere izango dugunez etekinak areagotzeko, haren barruan, beste hainbat gauzen artean, petakak egongo dira parrandan plastikozko botilak erabili beharrean, petaka berrerabilgarriak erabil ahal izateko, pauso bat aurrera eman nahi duenarentzat.

